

SOLDADUA ETA HERIOA

Aleksandr Nikoalevich Afanasiev



SOLDADUA ETA HERIOA

Soldadu batek, hogeita bost urtez armadan zerbitzatu ondoren, lizentzia zezatela eskatu eta mundua kurrizera joan zen. Bolada batez alderrai ibili zen, eta limosnatxo bat eskatu zion agure batekin egin zuen topo. Soldaduak hiru galleta baino ez zituen eta bat eskaleari eman zion, beste biak berarentzat gorde zituelarik. Aurrera jarraitu zuen, bada, eta handik gutxira beste txiro batekin egin zuen topo, eta honek ere, apaltasunez hari diosala egin ondoren, limosnatxo bat eskatu zion. Soldaduak bere hornidura txiro harekin partekatu zuen, galleta bat hari emanaz eta beretzat azken galleta gordez. Denbora luzea zeraman ibiltzen, hirugarren eskale batekin topo egin zuenean. Ilea elurra bezain zuria zeukan agure bat zen, apaltasunez ere diosal egin eta limosnatxo bat eskatu ziona. Soldaduak bere azken galleta atera eta honako gogoetak egin zituen:

«Galleta osoa ematen badiot, janaririk gabe geratuko nauk; baina erdia ematen badiot eta aurreko bi eskaleekin topo egiten badu, haiei galleta oso bana eman diedala ikustean litekeena

duk irainduta sentitzea. Hobe galleta osoa ematen badiot; moldatuko naiz eta.»

Hortaz, azken galleta eman zion, bera janaririk gabe geratu zelarik. Orduan, agureak galde egin zion:

–Esadak, seme, zer nahi duk eta zer behar duk?

–Jainkoak bedeinka hazala –erantzun zion soldaduak–. Zer eskatzea nahi duk ba, aitonatxo horrek, erabat txiroa haiz-eta, ez duk ezer eskaintzeko baina!

–Kontu ez egin nire lazturari eta esadak zer behar duan; agian hire bihotz onagatik hi saritzeko modua bazeukaat, eduki ere.

–Ez diat ezer behar; baina karta-sortaren bat baldin badaukak, emadak hire oroigarri.

Agureak poltsikotik karta-sorta bat atera eta soldaduari eman zion, esanez:

–Har ezak, eta hago ziur gauza batez: karta hauekin jokatu z gero, hik beti irabaziko duk, berdin zio norekin jokatu duan, beti irabaziko duk. Har ezak zakuto hau ere; bidean topatzen duana, dela pertsona dela animalia dela gauzakia izan, irekitzen baduk eta esaten badiok: «sar hadi barrura–,

zakutoa berehala irekiko duk eta bertan sartuko duk.

–Eskerrik asko –esan zion soldaduak.

Eta agureak esan zionari garrantzirik eman gabe, karta-sorta eta zakutoa hartu eta bere bideari heldu zion.

Luzaro ibili ondoren aintzira baten ertzera iritsi zen eta bertan hiru antzara ikusi zituen igerika. Soldaduari bere zakutoa saiatzea bururatu zitzaion; hura ireki eta oihu egin zuen:

–Ea ba, antzara horiek, sar zaitezte barrura!

Hitz horiek ahoskatu bezain laster, harridura handiz ikusi zuen hiru antzarak beregana hegan zetoze, eta zakuto barrura sartzen zirela. Soldaduak zakutoa ondo lotu, lepoan hartu eta bere bideari heldu zion.

Ibili eta ibili, azkenean hiri ezezagun handi batera iritsi zen. Taberna batean sartu eta esan zion tabernariari:

–Hi, to antzara hau eta afaritako presta ezak; beste antzara honen truke ogia eta pattar basokada eder bat aterako didak; eta hirugarren hau hiretzat, hire lanaren ordainez.

Mahaira eseri eta, afaria prest egon zenean, jaten hasi zen, pattarra edanez eta antzara gozoa janez. Afaldu ahala, leihotik begiratzea otu zitzaion eta tabernatik hurbil leiho guztiak puskaturik zeuzkan jauregi eder bat ikusi zuen.

–Esadak –galde egin zion tabernariari–, zer jauregi da hori eta zergatik dago txori-etxe bihurtuta?

–Orain dela urte asko –erantzun zion tabernariak– gure tsarrak jauregi hori eraikiarazi zian, baina ez zian bertan bizitzen jartzerik izan. Hamar urte zeramatzaat hutsik, deabruak euretzat hartu dutelako, eta bertan sartzen diren guztiak egotzi egiten ditiztek. Gaua heldu bezain laster han bertan elkartu eta dantzan, oihuka eta kartetan jokutzen hasten dituk.

Soldaduak beste ezertan pentsatu gabe, beste jauregi baterantz abiatu, eta tsarraren aurrean bere burua aurkeztuz eta diosal militarra eginez, horrela esan zion:

–Maiestate! Barka beza berorrek nire ausardia hona etortzeagatik berori ikustera. Txori-etxe bihurtuta daukan jauregian gaua igarotzeko baimen esker natorkio.

–Hi burutik egina hago! Gizon ausart eta kementsu ugari aurkeztu dituk nire aurrean eskaera

bera eginez; denei eman nieran baimena, baina haietako inor ez zuan bizirik itzuli.

–Errusiar soldadua ez da itotzen uretan ezta suan erretzen ere –erantzun zuen soldadua–. Hogeita bost urtez aritu naiz jaungoikoaren eta tsarraren zerbitzuan eta ez naiz hil. Uste al du berorrek orain gau bakarrean hilko naizela?

–Baina har ezak kontuan: gauez gizon bat bizirik sartu izan den guztietan, goizean haren hezurak baino ez dituk azaldu –erantzun zion tsarrak.

Soldadua bere nahiari ekin zion, txori-etxe bihurturiko jauregian gaua igarotzeko baimen eske eta eske tsarrari.

–Beno –esan zuen azkenean tsarrak–. Hoa hara nahi baduk; baina ezin izango duk esan bertan huen heriotzaz ez hinduela inork ohartarazi.

Soldadua jauregi abandonatu hartara jo zuen, eta behin barruan areto handi batean kokatu zen, motxila eta sablea lurrean utzita; lehena bazter batean jarri eta sablea iltze batetik zintzilikatu zuen. Mahaian eseri, tabakontzia atera, pipa bete, piztu eta lasai-lasai erretzen hasi zen.

Gaueko hamabietan, auskalo nondik, hainbeste deabru azaldu ziren, ez baitzegoen haiek

zenbatzerik. Oihuka, dantzan eta zalapartaka hasi ziren denak batera, sekulako iskanbila sorraraziz.

–Eup, soldadu! Hi ere hemen orduan? –oihu egin zuten hura ikusirik– Zertarako etorri haiz? Karta-jokoan aritu nahi duk gurekin ala?

–Eta zergatik ez? –soldaduak arrapostu–. Baina, baldintza batekin: nire karta-sorta erabiliko diagu, zuen karta-sortaz ni gutxi fio eta.

Berehala bere karta-sorta atera eta banatzen hasi zen. Jokaldi bat egin zuten eta soldaduak irabazi zuen; bigarreanean berdin gertatu zen. Deabruak hamaika azpikeria asmatu arren, zeuzkaten sos guztiak galdu zituzten; eta bien bitartean, soldaduak sosak bere patrikan sartzen, lasai demonio.

–Hago, lagun –esan zioten deabruak–; berrogeita hamar arroa zilar eta berrogei arroa urre zeuzkaguk: jokatuko dizkiagu zilar eta urre horiek guztiak.

Deabru malapartatu bat bidali zuten zaku bete urre eta zilar haien bila eta jokatzen jarraitu zuten. Soldaduak beti irabazten zuen, eta deabru malapartatuak, zaku zilar guztiak ekarri ondorenean, hain nekatuta zegoen, ezen, arnasa hartu ezinik, deabru burusoil zahar bati galde egin baitzion:

–Uztak atsedeen pixka bat hartzen.

–Ezta pentsatu ere. Alferrontzi halakoa!
Ekar itzak oraintxe bertan urrez betetako zakuak!

Deabru malapartatuak, beldurraren beldurrez, korrika bizian alde egin eta urrez betetako zakuak ekartzen jarraitu zuen, handik gutxira bazter batean pilatuta eduki zituen arte. Baina emaitza lehengo bera izan zen: soldaduak irabazten jarraitzen zuen. Deabruak, euren soseki adio esatea bat ere gogoko ez zutenez, mahaia ostikoka bota eta soldaduaren aurka egin zuten, denak batera orro eginez:

–Txiki-txiki egin ezazue! Txiki-txiki egin ezazue!

Baina soldaduak, bat ere urduritu gabe, bere zakutoari heldu, hura ireki eta galde egin zien:

–Ba al dakizue zer den hau?

–Zakuto bat! –erantzun zioten deabruak.

–Ba sar zaitezte denak barrura!

Hitz horiek ahoskatu bezain laster, deabru guztiak batera zakuto barruan amaitu ziren begi itxi-ireki batean, estu-estu eta itogarriri pilatuta. Soldaduak zakutoa ahalik eta hobekien lotu zuen soka batez, hormatik zintzilik utzi, eta gero, urrez

eta zilarrez betetako zakuen gainean luze-luze etzanda, lo sakonean murgildu zen, eta hurrengo goizera arte ez zen esnatu.

Goizean goiz, tsarrak esan zien bere zerbitzariei:

–Zoazte ikustera zer jazo zaion soldaduari, eta hilda badago, jaso itzazue haren hezurrak.

Zerbitzariak jauregira iritsi eta harri eta zur ikusi zuten soldatua poz-pezik paseatzen jauregiko aretoetatik, bere pipatik kea pafaka botatzen.

–Aupa, lagun! Ez genian espero hi berriro bizirik ikustea. Nola moldatu haiz deabrukin?

–Gizagaixo galantak bai deabru horiek! Begira, begira zenbat urre eta zilar irabazi zieat kartetan!

Tsarraren zerbitzariak harri eta zur zeuden eta nekez sinets zezaketen euren begiez ikusten zutena.

–Aho zabalik geratu dituk denak –jarraitu zuen esaten soldaduak–. Bidal itzazue nigana bi errementari eta ekar ditzatela eurekin ingudea eta mailuak.

Errementariak heldu zirenean eurekin ingudea eta mailutzarrak zekartzatela, esan zien soldaduak:

–Jaitsi hormatik zakuto hori eta esan kolpe ederrak jotzeko horren gainean.

Errementariak zakutoa hormatik jaitsi eta elkarri esamesaka hasi ziren:

–Ene Jainkoa, hau bai zakuto astuna! Bazirudik deabruz beteta dagoela!

Eta hauek barrutik hots egin zuten:

–Izan ere, gu gaituk, adiskide maiteok.

Ingudea –zakutoa gainean zuela– lurtean ipini eta haren aurka kolpe ikaragarriak ematen hasi ziren, burdina lantzen ariko balira bezala. Deabruak, mina gehiago jasan ez, eta izu-laborriz, deiadarka hasi ziren euren indar guztiekin:

–Emaguk barkamena, soldadu! Utz gaitzak libre! Ez haugu inoiz ahaztuko eta inongo deabruak ez duk sekula jauregi honetan berriz sartuko, ezta ehun legoa ingurura gerturatuko ere!

Soldaduak errementariei gelditzeko agindu zien, eta zakutoa askatu bezain laster hortxe atera ziren deabru guztiak ziztu bizian korrika, behin ere atzera begiratu gabe; begi itxi-ireki batean

jauregitik aienaturik zeuden. Baina denek ez zuten ihes egiteko zortea izan: besteek adina korrika egiterik izan ez zuen deabru herren bati lepotik heldu zion soldaduak eta bahitu gisa atxiki zuen.

Tsarrari soldaduaren balentriak kontatu zizkiotenean, bere aurrera etorrarazi zuen, eta lausenguz bete eta jauregian bizitzen utzi zion. Orduz geroztik, soldadu ausarta bizitzaz gozatzen hasi zen, denetik baitzeukan, erruz eduki ere: patrikak urrezko txanponez mukuru, mundu guztiaren begirunea eta uste-ona (izan ere, harekin topo egiten zutenean errespetuzko diosalak egiten zizkioten) eta tsarraren nahitasuna.

Hain pozik zegoen, ezkondu nahi izan baitzuen. Emaztegaia bilatu zuen, ezteiak ospatu zituzten eta, gutxi balitz, handik urtebetera seme bat izan zuen Jainkoaren graziaz. Baina handik gutxira, haurra gaixo jarri zen eta inork ez zuen lortzen hura sendatzea. Aztertzen zuten sendagile eta petrikiloek ezer gutxi egin zezaketen haurra sendatzeko. Orduan, soldadua deabru herrenaz gogoratu zen; hura atxilo zeukan zakutoa ekarri eta galde egin zion:

–Bizirik hago, Deabru?

–Bai, bizirik nago. Zer nahi duzu, o ene jabe horrek?

–Semea gaixorik zeukaat eta ez zekiat zer egin senda dadin. Agian hik jakingo duk nola sendatu.

–Bai, badakit. Baina ezer baino lehen, utz nazazu zakutotik ateratzen.

–Eta ziria sartzen badidak eta ihes egiten baduk?

Deabru herrenak zin egin zion une batez ere ez zitzaiola horrelakorik burutik pasako, eta soldaduak, zakutoaren soka askatuz, atxilotua aske utzi zuen.

Deabruak, askatasuna berreskuratu ordurako, bere poltsikotik ur baso bat atera, urez bete, haurra gaixorik zetzan ohearen buruan jarri eta esan zion umearen aitari:

–Zatoz hona, o ene jabea, eta begiraiozu urari.

Soldaduak urari begiratu zion, eta deabruak egin zion galde:

–Zer ikusten duzu?

–Herioa ikusten diat.

–Non dago?

–Nire semearen oinetan.

–Ondo. Oinetan badago, horrek esan nahi du gaixoa sendatuko dela. Oheburuan egon izan balitz, erremediorik gabe hilko litzateke. Orain har ezazu edalontzia eta busti ezazu gaixoa.

Soldaduak haurra edalontziko urarekin zipriztindu, eta unean bertan sendatu zen.

–Eskerrik asko –esan zion soldaduak deabru herrenari, eta aske utzi zuen, edalontzia beretzat bakarrik gordez.

Une hartatik aurrera sendalari jardun zuen, boiardoak eta jeneralak sendatzen zituelarik. Edalontzian begiratzea beste nekerik ez zuen hartzen, eta berehala esaten zuen gaixoetako zein biziko zen eta zein hilko zen, ziurtasun osoz esan ere.

Holaxe joan ziren zenbait urte, harik eta egun batean tsarra gaixotu zen arte. Soldaduari deitu zioten, eta honek, edalontzia iturriko urarekin bete ostean, oheburuan jarri, urari begiratu eta ikaraz ikusi zuen Herioa, zelatari baten gisa, gaixoaren oheburuan eserita zegoela.

–Maiestate! –esan zuen soldaduak–. Inork ezin izango dio berorri osasuna berreskurazi. Bizitzeko hiru ordu baizik ez zaizkio geratzen.

Hitz horiek entzunda, tsarra asko haserretu zen eta amorru handiz egin zion oihu:

–Nolatan ba? Hik, neure boiardo eta jeneralak sendatu dituan horrek, ez al duk ni sendatzeko asmorik, hire subiranoa naizen hau? Kasta txarreko, ezduina ote naiz hiretzat ala? Sendatzen ez banauk, ni hil eta ordubetera hi hilarazteko agindua emango diat.

Soldaduak arazo horren aurrean zer egin ez zekiela gelditu zen eta Herioari erreguka hasi zitzaion, horrela:

–Emaiok bizia tsarrari eta har ezak horren trukean nirea, zeren modu batez zein bestez hil behar baldin badut, nahiago nik hire eskuetan hil, ezen ez borreroaren eskuetan.

Edalontziari begiratu zion eta Herioak onespén-keinu bat egiten ziola eta tsarraren oinetan jartzen zela ikusi zuen.

Soldaduak gaixoa edalontziko urarekin ziprztindu eta hura berehala suspertu zen eta ohetik jaiki zen.

–Aizak, Herioa –esan zuen soldaduak–, emazkidak hiru ordu; etxera joan beharra zeukaat emazteari eta semeari agur esateko.

–Ados –erantzun zion Herioak.

Soldadua etxera joan, ohean sartu eta oso gaixorik jarri zen. Herioa handik gutxira heldu eta haren oheburuan jarri zen, esanez:

–Esan agur azkar hire senideei, bizitzeko hiru minutu baino ez zakizkik geratzen eta.

Soldaduak beso bat luzatu, zakutoa hormatik hartu, ireki eta galde egin zion:

–Zer da hau?

–Zakuto bat.

–Egia; ba sar hadi barrura.

Eta Herioa amen batean zakuto barruan aurkitu zen.

Soldaduak hain lasaitu ederra hartu zuen, ohetik jauzi baitzuen, eta zakutoa estu-estu lotuz, bizkarrean hartu eta Briauskie-ko baso usuetara zeraman bidea hartu zuen. Hara iritsi zenean, zakutoa makal baten adaburutik zintzilikatu eta etxera itzuli zen poz-pozik.

Orduz geroztik jendea ez zen hiltzen. Jaio eta jaio egiten ziren, baina inor ez zen hiltzen. Horrela urte mordoa igaro zen, eta soldaduak zakutoa makaletik jaitsi ez.

Behin hiritik pasieran zebilela, andre zahar-zahar batekin egin zuen topo; hain zahar-okitua zen, ezen lurrera erortzen baitzen haize-boladatxo bakoitzarekin.

–Jainko ahalguztidunaren izenean, zeinen zaharra haizen! –oihu egin zuen soldaduak–. Hil hadin garaia badun!

–Bai, seme –erantzun zion andre zaharrak–. Herioa harrapatu huenean, bizitzeko ordubete baino ez zitzaidan geratzen. Atsedean hartzeko irrikan negok; baina, nola? Heriorik gabe lurra ez naik onartzen bere erraietan betiko atsedena har dezadan. Jainkoak zigortuko hau hargatik, mundu honetan ni bezala sufritzen ari direnak asko eta asko baitira, hire erruz.

Soldadua pentsakor geratu zen: «Antza denez, Herioa askatzea beste biderik ez zegok, hilko banau ere», pentsatu zuen. «Ni bai bekatari handia!». Eta bere senide eta lagunei adio esan eta Briauskie-ko basoetara jo zuen. Hara iritsi, makalera hurbildu eta zakutoa zuhaitzaren adaburutik zintzilik ikusi zuen, haizeak zabunkaturik.

–Hi, Herioa, bizirik al hago? –galde egin zion soldaduak.

–Bai horixe, lagun.

Soldaduak zakutoa jaitsi, soka askatu eta ireki egin zuen, Herioa aske utziz, eta ahalik eta azkarren hil zedin erregutu zion, gutxi sufritzeko; baina Herioa, hari kasurik bat ere egin gabe, ziztu bizian atera zen zakutotik eta istant batean aienatu zen.

Soldadua etxera itzuli zen eta luzaro bizi izan zen oraindik, zorion betean bizi ere. Denek uste zuten ez zela inoiz hilko; baina, diotenez, duela gutxi zendu da.